

9

Literatura eta euskararen garabidea

Jon Alonso

Itzultzailea eta idazlea

jon.alonso@unavarra.es

Sarrera-data: 2012-05-20 | Onartze-data: 2012-06-20

Laburpena. Jon Alonso itzultzaile eta idazleak egoera diglosikoan dauden bi hizkuntzen artean itzulterakoan sortzen diren arazoetatik abiatuz (egoera gutxituko hizkuntza izanik xede-hizkuntza, jakina), literaturaren arazoa ala hizkuntzaren arazoa ote delako galdera planteatzen du. Zer neurritan lagun dezake literaturak hizkuntzaren garabidean? Paradigma zaharrak (edo modernoak, nondik begiratzen zaion) erakusten du literaturaren eragina gizartearen hizkuntzan nabaritzen dela (piramidearen goiko erpinean olioan isuriz denborarekin beheko geruza zabaletan antzematen den modura). Gaur egun, ordea paradigma hori lurrundu delako kontzientzia plazaratzen du Alonsok, iraultza digitalak dena hankaz gora jarri baitu. Alde horretatik, oinarrian literaturak duen eragin-gaitasuna (beste eginkizunak albo batera utzi gabe, jakina), hoberenean ere, oso-oso murrizta da, hain zuzen bere hedatze-gaitasuna oso txikia delako. • *Hitz-gakoak: literatura, diglosia, kultura-piramidea.*

Abstract. Development of Literature and Basque. Starting from the problems that arise when translating between two languages that are in a diglossic situation (in which the little used language is the target language, of course), the translator and writer Jon Alonso raises the question of whether it is a literary problem or a language problem. To what extent can literature be of use in the development of the language? The old paradigm (or modern one, depending on how one looks at it) shows that the influence of literature on the language of the society is clear (just like when oil is poured onto the uppermost point of a pyramid, as time passes it is noticed in the lower, broader layers). Today, however, Alonso points to the awareness that this paradigm has become fuzzy, because the digital revolution has turned everything upside down. In that respect, the ability to influence the literature is basically (naturally without abandoning other tasks) in the best of cases very, very limited, because its ability to spread is in fact very small. • *Key words: literature, diglossia, culture pyramid.*

Gogoeta labur eta impresionista samar batzuk izenburuko gaiari buruz. Nik baino buruargiago den batek heldu al baliezaio. Ausartu izanaz naiz errudun, ez ustea edo buruiritzia izanaz.

DIGLOSIK DENARI ERASATEN DIO, LITERATURARI ERE BAI

I
Gauza jakina da, baina itzultzailea tokirik egokienean dago horretaz jabetzeko, idazlea baino areago. Idazleak beti bila dezake (bilatu egiten du, bilatu ere, erlatiboki aise, gainera), bere hizkerak, bere hustu beharrak eta bere zentzu estetikoak bat egiten duten puntua, dela lirikan, dela geografia narratiboetan, itxiagoak edo irekiagoak, errealagoak edo alegiazkoagoak.

Itzultzaileak, ordea, ez dauka jatorrizko testuaren tiraniatik ospa egiterik; eta jatorrizko testua, ia beti, milioika hiztun, idazle, irakurle dituen hizkuntza tiraniko horietako batean idatzita dator. Adibide asko jar daiteke, noski. Nik hemen Quim Monzóren testu bat ipiniko dut adibide, *La magnitud de la tragedia* izeneko nobelatik aterata.

Nobela horretan, bada neska bat, nola esan, erabakitzen ez dena bere burua sexu fisikoaren plazeretara ematera, aukeratutako bikotea egokia izango ote den beldurrez. Nobela zehar aski xehetasunez eta katxondeo giro nabarmenez kontatzen diren hainbat saiakera eta gero, Ana Franciscak, liburuaren bukaera aldera, erabakitzen du Luis Alberto dela bere lorea merezi duen gizona... Baina Monzó kabroiak kontatzen du sexu-topaketa medikuntzako hizkera erabiliz: “*Ana Francisca subía y bajaba la mano por la espalda de Luis Alberto, la arteria cavernosa de cuyo pene se abrió, gracias a la contracción de las tiras musculares que la alojaban. A un tiempo, bajo la influencia del nervio erector de Eckhardt, todas las válvulas de derivación se le cerraron. La sangre se precipitó en el interior de la arteria y se introdujo en los cuerpos esponjosos eréctiles. Debido a la compresión de las venas del área, la sangre que había llenado los espacios cavernosos no podía escapar, como habría ocurrido en circunstancias normales (...)*”

Multitermen arabera, “arteria leizetsua” eman beharko genuke “arteria cavernosa”; “nervio erector de Eckhardt”, “Eckhardten nerbio zutitzailea”; “Deribazio-balbula” eman beharko genuke “válvula de derivación” horren ordainez...

Ez da beharrezkoa itzulpen osoa egitea zer nolako testua aterako zen irudikatzeke, ezta?

Neskaren erantzun fisiologikoa ere, berdin: “*A Ana Francisca, por su lado, el aumento del estrógeno en circulación le humedecía las paredes vaginales*

Gauza jakina da, baina itzultzailea tokirik egokienean dago horretaz jabetzeko, idazlea baino areago. Idazleak beti bila dezake (bilatu egiten du, bilatu ere, erlatiboki aise, gainera), bere hizkerak, bere hustu beharrak eta bere zentzu estetikoak bat egiten duten puntua, dela lirikan, dela geografia narratiboetan, itxiagoak edo irekiagoak, errealagoak edo alegiazkoagoak.

**Tresna daukagu,
baina tresna
sinesgarri egingo
lukeen erabilera-
eremurik, edo
erabilera masa
kritikorik ez.**

(...) *La vagina de Ana Francisca empezó a contraerse con regularidad, lo mismo que el útero. La pituitaria liberó oxitocina. Tuvo una contracción muscular espástica de tres segundos de duración. Ahora, los músculos que le rodeaban la vagina se contraían rítmicamente cada ocho décimas de segundo. También se le contraían el útero y el recto, y estas contracciones provocaron la liberación de la sangre retenida en las venas de la pelvis (...)*".

Eta abar. Gaztelaniaz irakurrita, eta nobelaren testuinguruan, barrez lehertzeko modukoa gertatzen da. Teknika oso ezaguna da, eta teknikaren funtsa da egoera bat kontatzea egoera jakin horren lojikari ez dagokion hizkera —jargoi, teknolekto...— bat erabiliz.

Euskaraz, "Hiru segunduko muskulu-uzkurdura espastiko bat eduki zuen", edo "Eckhardt-en nerbio zutitzailearen eraginpean, deribazio-balbulak itxi zitzaizkion" irakurrita, irakurle batek baino gehiagok usteko zuen testua auto-konponketa batez ari dela; seguru asko "elite" txiki batek baizik ez zuen asmo umoristikoa jasoko gaztelaniaz bezain ondo. Literatura ez dago diglosiarenean haginkadatik libre.

Kultura ertain baten jabe den gaztelaniadunak, ordea, ez dauka halako arazorik; medikuen hitz egiteko modua eta terminologia menderatzen ez baditu ere, medikuarekiko eta beren mordoiloarekiko esperientzia dezente ohi dauka, eta horregatik beragatik, jarrera eta hizkera horien gaineko juzkua eta iritzia ere bai, ez gutxitan; hortaz, kultura maila ertaina daukan irakurleak, pituitaria zer den eta oxitoxina zer den jakin gabe ere, erraz identifikatzen du zein den idazlea erabiltzen ari den hizkuntza-erregistroa; erkatu ere egiten du erregistro horren gainean daukan iritzia aurkezten zaion egoera arruntarekin; hortaz, teknikak bere ondorioak eragiten ditu, eta erantzun emozionala, irria kasu honetan, sortzen da.

Beste batean aritu izan naiz honetaz (*Astrolabio* liburuan, 67.-76. or, Pamiela, 2007, barka nire burua aipatzea), Cortazarren ipuin bat dela kausa. Teknika bera irria ez, eta beste emozio klase bat, beste atmosfera bat sortzeko.

Itzultzaileek hauek bezalako mila adibide eman litzakete. Denetan, atera daitekeen ondorioa berbera da: tresna daukagu, baina tresna sinesgarri egingo lukeen erabilera-eremurik, edo erabilera masa kritikorik ez. Alegia, egoera diglosikoak, itzulpena ezinezko bihurtu ez arren, baldintzatzen du, eta nola gainera, itzulpen askoren zabalkunde eta eraginkortasuna, "funtzionamendua, korritzea", esan ohi den bezala. Bai eta —noski— A hizkuntza batean, hizkuntzaren hizkeretan, lengoaietan, erregistroetan oinarriturik, normal-normal erabiltzen diren teknikak, B hizkuntzan erreproduzitu nahi dituen idazlearen testu jatorrizkoarena ere (beste modu batera esanda, honaino ari garen ildotik, efektu komikoa

sortu nahi badut amodio platoniko baten deklarazioa notarioen teknolektoa erabiliz, edo amodiozko konkista bat militarren terminologia erabiliz, arazo handi samarrak edukitzea oso litekeena da, ez denak nire talentuari edo talentu faltari egotzi beharrekoak).

Sarrionandiak nik baino laburrago adierazi du, baita hobeki ere: *“Idea faltsu bat da, nire ustez, euskara gaztelerarekin eta frantsesarekin homologabea dela pentsatzea (...) hizkuntzak berez dira edozertarako gai, baina gai egiten diren neurrian (...) Euskara eta bi erdarak maila desberdineko hizkuntzak dira soziologikoki eta psikologikoki”*. (Moroak gara behelaino artean?, 2010: 534. orria).

Alabaina, aipatzen ari naizen hau zer da, literaturaren arazoa edo hizkuntzaren arazoa? Nik esango nuke biena dela, uste dudalako hizkuntza eta literatura hain elkarren ondokoak direnez, elkarrenak direla bai arazoak eta baita lorpenak ere. Bestela, arazoari buelta emanda: diglosiak literaturari erasaten dio, baina, zer neurritan lagun dezake literaturak hizkuntzaren garabidean, diglosia gainditzeko, esaterako?

PARADIGMA ZAHARRA

Goiko galderari erantzuteko garaian, nik esango nuke batzuk —aski zaharrak garenok, edo— paradigma zahar baten mende bizi izan garela edo bizi garela. Paradigma zaharrak errealitatearen funtzionamenduaren eredu argi, sinesgarri eta kontsolagarria ematen zuen. Paradigma hori, ordea, erabat okerra ez bazen ere, bere mugak bazituen, eta bere arazoak, eta eragin berrien eta indar berrien pean moldatu beharrekoa zen; eta beharbada kosta egin zaigula mugez eta arazoez konturatzea. Denbora aurrera doa.

“Paradigma zahar” izendatzen dudana (baina berez, “moderno” ote den susmoa daukat) honen arabera, gauzak nolakoak ziren, beste adibide batekin argituko dut:

“Laguna hausten den hilobiak leher egiteraino zurruta kantua egin litekeen mahaia izan behar luke, zer axola plastikozko lore zikin hauek dardaraka ontzi jausi zartatuaren lepoan, zer axola gure mozkorraldiaren puskillak aldare profanatu batean, zer axola du, bizitza hau ez da edangarria”.

Ez naiz lehena artikulura Koldo Izagirrearen azken nobelaren hasierako esaldia ekarri duena. Baina abiapuntu egokia iruditzen zait esan nahi dudana ilustratzeko.

Koldo Izagirrearen esaldi horrek, eta beste askok, gauza bat daukate amankomunean, Izagirrearen estiloak ezaugarri bat dauka: euskara hiz-

**Diglosiak
literaturari
erasaten dio,
baina, zer
neurritan lagun
dezake
literaturak
hizkuntzaren
garabidean,
diglosia
gainditzeko,
esaterako?**

**Goiko galderari
erantzuteko
garaian, nik
esango nuke
batzuk –aski
zaharrak
garenok, edo-
paradigma zahar
baten mende bizi
izan garela edo
bizi garela.
Paradigma
zaharrak
errealitatearen
funtzionamendua
ren eredu argi,
sinesgarri eta
kontsolagarria
ematen zuen.**

kuntzaren adierazpen-mugekin borrokan dago beti, sintaxia bihurritzen du ahalmen adierazkor berrien bila, ofizio literarioaren trikimailuak erabiltzen ditu ilunbeari, esanezinari koxka bat kentzeko. Hizkuntza gela estu batean itxita balego bezala da, eta estiloaren bidez, bere presondegi bihurtu den gela horren hormak, muga estuak, atzeraka bultzatzen dituela dirudi, gela zabalago eta bizigarriago bihurtzeko.

Izagirre esan dut, horretan nabarmena delako, baina ez da bakarra, jakina. Idazleen, idazle onen zerginetako bat horixe da. Baita horien lanak itzultzen dituzten itzultzaileena ere. Euskal idazle eta itzultzaileen zereginetako bat da: hizkuntzaren adierazpen-ahalmena lantzea, zabal-tzea, aberastea.

Utz iezadazue hartu dudan adibidearekin segitzen, adibidearen plano guztiak aintzat hartzen ez baditut ere, zalantzarik gabe aski konplexua den fenomeno nolabait murrizten badut ere; utzidazue erredukzionismoaz baliatzen, zirriborratu nahi dudan ideiares mesedetan: inoren hilobia zurruta-kanturako mahai bihurtzea (kantuari askotan lagundu ohi dizkioten mahai gaineko ukabildakak eta guzti, antza, loreontzi jausiak iradokitzen duen bezala) orain arte, —euskaraz bederen, ez dakit beste hizkuntza batean, ez dut uste baina— inori bururatu ez zaion posibilitatea da. Posibilitate berri horren bidetik, ordea, nik eta beste askok beste mila posibilitate asma ditzakegu, orijinalagoak edo topikoagoak, biziagoak edo motelagoak: autoaren kapota ohe bihurtu, ohea mahai, mahai espaziountzi, espaziountzia frontoi, frontoia uholde (“*Olaizolak gantxoak egiten dituen frontoiak injustiziaren aurka eztarri betean ari den jende-uholdea izan behar luke...*”).

Hizkuntzaren muga espresiboak zabaltzen saiatzen den orok lortzen duen ondorioa da. Espazioa zabalagotzen du, gela handiagotzen, han bizi garen guztien onerako. Ondoren etorriko gara besteok, bigarren, hirugarren edo n-garren mailako birsortzaileak, eta espazio zabalago horretan jostatuko gara, basoan garbitu duten soilunean ipiniko dugu kanpai-denda, lehen habitagarria ez zen lurraldean egun batzuk pasatzeko. Lehen hizkuntzak ez zeuzkan espazioak kolonizatuko ditugu.

Uste genuen horrela osatzen edo “konplitzen” zirela hizkuntzak, Axularrek esaten zuen moduan (idatziaz ari naiz, jakina, nahiz idatzia eta ahozkoa elkarren eraginean egon denbora guztian). Bai behintzat, orain arte erabili izan den paradigma zaharrean (modernoan?).

Piramide porotsu baten goiko erpinean botatzen den olio botila batekin konparatu izan dut inoiz: denboragarrenera, piramidearen oinarrian aurkituko dugu goiko erpinetik botatako olio horren arrastoa, mailaz maila goitik oinarriaraino labandurikoa.

Batzuek, uste dut, literatura izateko bokazioa zeukan zerbait idazten hasi ginenean, euskaraz, elkarren osagarri sentitzen genituen bi grina baturik hasi ginen: lekukotasun bat ematea, ikuspuntu estetiko batetik, ahaleginak, bidenabar euskara indartuko zuelakoan. Hau da, euskal kulturaren piramidean sartuta geundelako kontzientzia betea geneukan.

Alegia, uste genuen hizkuntzaren erabilerak, erabilera literarioak, batez ere, aberastuko eta ugalduko lituzkeela estiloak, normalizatuko lukeela hizkerak, hitzak, esanezina esateko moduko bihurtuko lituzkeela... diglosia gaintitzen lagunduko ligukeela. Alegia, gorago egin dudan galderari, horixe erantzuten genion batzuek: bai, diglosiak erasaten dio literaturari, baina literaturak diglosia gaintitzen lagun dezake, nabarmen, gainera.

Baina, jakina, medikuntzaren teknolektoa euskaraz suelto ibiltzeko, esaterako, askoz garrantzizkoagoa da Osakidetzaren dekretu batek munduko medikuntzari buruzko ipuin guztiak euskaratzeak baino.

PARADIGMA ZAHARRAREN MUGAK, EZINAK ETA AKATSAK

I
Beraz, sortzaileak bidea urratuko du, eta ondoren etorriko gara besteok. Horrela izaten da (edo izaten zen?) munduko hizkuntza eta kultura guztietan.

Eredua perfektoa, arazorik gabea... ematen du. Zenbaterainoko eraginkortasuna dauka, baina? Zeren denok konturatzen gara, edo susmatzen dugu, gauzak ez direla hain errazak eta perfektuak. Fisikan bezala, edozein lan-sistematari kontuan hartu beharreko datu garrantzizkoa efizientzia da: erretzen den energia eta ateratzen den emaitzaren arteko ratioa, alegia.

Eskeman huts —huts... erdi huts-edo— egiten duen lehen gauza hautatu den eredu literarioaren mugak dira (piramidearen erpinetik botatzen dugun olio, alegia). Nire ustez aukera horrek ez dauka bueltarik, eta gainera aski errotua eta arrazoitua dago, gutxienez XVII. mendetik, XX. mendera arte. Axularrek berak piztuko zituen, oso litekeena da, inkisizioak sorginak erretzeko prestatutako egur-metak. Baina hark egingandako hautu literarioak —prosan egiteko moldea, nahiago bada— orain gauden tokira ekarri gaitu. Beste askok berretsia, nabarmenetako bat Villasantek (ikus *Euskararen auziaz*, esaterako), eta ondoren, edo lehen, edo alboan, euskara batua sortu zuten guztiek, Mitxelena buru zutela, eta Txillardegi emagin. "*Hizkuntza eredu hori beste Alter bat bihur daiteke-eta, literatura beste zerbait dela gogorarazi beharko da*", dio Sarrionandiak, eta ez

Idazleen, idazle onen zerginetako bat horixe da. Baita horien lanak itzultzen dituzten itzultzaileena ere. Euskal idazle eta itzultzaileen zereginetako bat da: hizkuntzaren adierazpen-ahalmena lantzea, zabaltzea, aberastea.

**Uste genuen
hizkuntzaren
erabilerak,
erabilera
literarioak, batez
ere, aberastuko
eta ugalduko
lituzkeela
estiloak,
normalizatuko
lukeela hizkerak,
hitzak, esanezina
esateko moduko
bihurtuko
lituzkeela...
diglosia
gainditzen
lagunduko
ligukeela. Alegia,
gorago egin
dudan galderari,
horixe erantzuten
genion batzuek:
bai, diglosiak
erasaten dio
literaturari,
baina literaturak
diglosia
gainditzen lagun
dezake,
nabarmen,
gainera.**

zaio arrazoi-punturik falta. Sarririk esaten duen bezala, itzulgarritasuna eta inguruko erdarekin homologalizazioa bilatzea dira ezarri den ereduaren ezaugarri nagusiak. Eta ahalegin horrek gauza asko utzi ditu bide bazterrean, eta garrantzizkoak, gainera. Eta ahalegin horrek polizia linguistikoez bete du euskal jarduna, emankorrena antzutzeraino, freskoena bakailao idor bihurtzeraino. Baina horrek, gabeziak gabezia eta bakailaoak bakailao, ez dauka bueltarik.

Eskeman huts —huts... erdi huts-edo— egiten duen hurrengo, “definitu” dudan paradigmak bere baitan zeukan ideia-ardatz bat da: transmisioaren beraren ideia. Hau da, paradigma “moderno” horren arabera, gizarteak aski baliabide zituen, eta aski eraginkor —eskola, unibertsitatea, komunikabideak, administrazioa...— hizkuntzaren garapena bermatzeko ez ezik, garapen horren abaroen birsortzen eta bilakatzen ziren hizkuntza-motak hiztun guztiengana iristeko, eta hiztun guztien baitan, aldez edo moldez, nagusitzeko. Aldez edo moldez diodanean, hauxe esan nahi dut: norberaren hautuetatik eta gustuetatik haratago, hizkuntzaren unibertso osoan funtzionalak izateko.

Idatzi dut lehen: ondoren etorriko gara besteok, n-garren mailako birsortzaileok... Ondoren etorriko gara besteok? Seguru da?

Nolakoa da, ordea, euskal kulturaren piramidea? Hau da, nortzuk dira eredu literarioa transmititu, zabaldu, gizarteratu beharko luketenak? Idazleak, noski. Gero, lehen olatuan, kritikariak; eta gero, aipa ditzadan lehentasunezko hurrenkerarik gabe: erakundeetako kultur arduradunak, kultur teknikariak, liburu-saltzaileak, liburu-zabaltzaileak, kazetariak, liburuzainak, eskolako, institutuko eta unibertsitateko irakasleak, editoreak eta editorialak, irratietako esatariak, kultura dibulgatzaileak, telebistako aurkezleak, kultura dinamizatzaileak, egunkariak, irakurle-klubak; eta azken-azkenik, piramidearen oinarrian, hor agertuko lirateke irakurleak, gizabanakoak.

NON DAUDE HORIEK GUZTIAK? ZERTAN ARI DIRA?

I
Nork bere iritzia edukiko du literatura dibulgateaz eta zabaltzeaz arduratu beharko liratekeen aurrean aipatu ditudan horiei guztiei buruz. Nire inpresio orokorra aski ezkorra da, ez dut ezkutatu; baina, aldi berean, konturatu naiz hauxe dela, agian, historia honetan guztian klabea, gakoa, giltza den auzia: egitura sendorik gabe, ez goaz inora. Baina hau ez da konpontzen ez parrafo eta ez artikuluko batean; ezta institutuko irakasleen aurkako diatriba batekin ere, ezta administrazioek gehiago lagundu behar dutela esatearekin ere.

Are larriago (eskemaren beste huts edo erdi-huts bat): behar beste, behar den moduan, behar den gogoaz, behar den arduraz eta behar den tokian egongo balira ere, zer jarrera hartuko zuten? Zer jarrera hartzen dute daudenak? Sarrionandiaren lehen aipuaren zati bat erreskatatuko dut: “Euskara eta bi erdarak maila desberdineko hizkuntzak dira soziologikoki eta psikologikoki.” Eta lehen entresaka egin eta gero, bigarrena eginda, hitz bakarrarekin geratuko naiz: *psikologia*.

Hemengo auzi linguistikoaren osagarri garrantzizko bat psikologikoa da, horretaz guztiz seguru nago. Oso harreman urrutikoa daukat psikologiarekin (“zientziarekin”, esan nahi dut); badakit soziologia lehenetsi dela euskararen gorabeherak aztertzeke garaian; ari ere, soziologia aldizkari batean ari naiz une honetan. Baina zer da soziologia, psikologiaren sozializazioa ez bada?

Nik ez dakit tutik ere psikologiaz (“zientziatz”). Aldiz, oso garbi ikusten dut A hizkuntzek —gure kasuan gaztelania eta frantsesa, alegia— ez dutela erakarmen indarririk galdu euskaldun gehienek pertzepzioan; eta B hizkuntzaren aldaera estandarra —batua, jakina; eta berriz ere lehengo gaira itzuliko ginateteke—, aldiz, berrogeita hamar urteko ibilibidea eta gero, oraindik susmagarria dela; eta susmagarria, ez euskararen garapenaren aurkako gizarte-indarrentzat, baizik eta euskaldun askorentzat ere. Batzuetan etsigarria izaten da ikustea zer jarrera akritikoz jaten dugun A hizkuntzaren mahaitik jausten den edozein apur, kaka-apurra izanik ere; eta aldiz, jarrera kritikoa nola zorrozten den azken puntaraino, B hizkuntzaren berrikuntza eleganteenaren aurrean ere. Erdal itsasoko sardina apala euskal urmaeleko marrazo bihurtzen da aise.

Bai, Fanonengandik eta enparauengandik dakigu kolonizatuaren baitako alienazioaz eta automespretxuaz. Eta eman didaten gaitik ateratzen ari naiz. Eta ez naiz nor psikologiaz hitz egiteko, eta hau ez da tokia. Baina sentsazioa daukat honetan guztian osagarri psikologikoak daukan garrantzia gutxietsi dugula. Ez da osagarri hori batere zaindu. Asimetriak nabarmenak dira, ordea: zubererazko edo bizkaierazko euskaldunari exijitu zaio estandarra, esaterako, eta estandar hori baizik jaso ez duenak ez du inon demostratu behar izan natiboek hitz egiten duten mila bariantetako batean, gutxienez, moldatzen dela; eta etxeko euskaratik estandarredera bide eroso eduki duenari ez zaio eskatu ondoko herrikoa, gutxienez, menderatzea. Eta kontu honetan, segun eta zertarako, segun eta non egoteko, segun eta zer egiteko, denoi eskatu beharko litzaziguke, nori berea, baina denoi zerbait, beharra dago-eta.

Eta azak ontzeko, literaturaren ikuspegitik bederen, printzipioz behintzat gure ezintasun eta arazo psikologikoetako asko gaintituta

**Itzulgarritasuna
eta inguruko
erdarekin
homologalizazioa
bilatzea dira
ezarri den
ereduaren
ezaugarri
nagusiak. Eta
ahalegin horrek
gauza asko utzi
ditu bide
bazterrean, eta
garrantzizkoak,
gainera. Eta
ahalegin horrek
polizia
linguistikoez bete
du euskal
jarduna,
emankorrena
antzutzeraino,
freskoena
bakailao idor
bihurtzeraino.
Baina horrek,
gabeziak gabezia
eta bakailaoak
bakailao, ez
dauka bueltarik.**

**Eta azak ontzeko,
literaturaren
ikuspegitik
bederen,
printzipioz
behintzat gure
ezintasun eta
arazo
psikologikoetako
asko gaindituta
edukiko zituen
belaunaldi gazte
aski zabal batek
eskola euskaraz
jaso duenean,
literatura bera da
gero eta
bazterrekoagoa
dena,
teknologiak eta
gizarte
posmoderno
honek eskaintzen
dituen neoizko
argi dirdaitsu eta
ugarik
zokoratuta.
Iraultza digitalak
dena hankaz
gora jarri du.**

edukiko zituen belaunaldi gazte aski zabal batek eskola euskaraz jaso duenean, literatura bera da gero eta bazterrekoagoa dena, teknologiak eta gizarte posmoderno honek eskaintzen dituen neoizko argi dirdaitsu eta ugarik zokoratuta. Iraultza digitalak dena hankaz gora jarri du.

Orduan, gure paradigma zaharra kolokan geratu da.

ADIBIDE PRAKTIKOA: LANBASA ESATEN DIOTEN HITZ BATEN IBILI HERRENAK

I
Oraingo gizarteak, ordea, modernoak sekula amestu ez zituen abantailak eskaintzen ditu. Batek edozer jakin dezake, wikipediari esker dena klik baten distantziara baitago; euskara biziberritzeko planaren materialak, beste klik batera; ereduzko prosa, beste batera... Sikira dauzkagun tresnak zertaz ari garen jakiteko erabiltzen asmatuko bagenu.

Ea ba.

Bazen behin euskaldun bat, estatistiken arabera omen dauden 600.000 euskaldun horietako bat, ardo botila eskarazteko behegainera jausi eta apurtu zitzaiona (derradan artean, a ze desplazent, ardo botila modu horretan apurtzea).

Berehala konturatu zen garbitzeko zerbeit behar zuela, baina falta. Lagunari deitu zion, eske. Baina ez jakinki nola eskatu.

— *Hi, fregonarik al daukak?*

Hau ezin daiteke jakin neke handirik gabe, eta erratzeko tarte handirik gabe, baina egingo nuke euskaldun omen diren 600.000 horietatik (zehatz esateko, 665.750 Euskal Herriko hizkuntza-adierazleen sistemaren arabera, “euskal elebiduna”, “elebidun orekatua” eta “elebidun hartzailea” kategoriak kontuan hartuta) 400.000 lagunek “fregona” esango luketela. Beste 100.000 lagunek bestelako perifrasiak erabiliko lituzteke, edo “garbi zan” esango lukete, edo agian “erratza”, edo beste hitz ez oso ezagunen bat erabiliko lukete. Baikor izanda, demagun 100.000 lagunek “lanbasa” erabiliko luketela.

— *Hi, lanbasik al daukak?*

Egiten ahal da hitzaren jarraipena, eta datu batzuk eman.

Orotariko Euskal Hiztegiak jasotzen du lanbas hitza: “lampazo, estropajo grande hecho de retales de paño que sirve para fregar los costados y cubierta de lanchas y otras embarcaciones”. Orotarikoak esanahi me-

taforiko oso polit bat biltzen du, baita ere: “Lotsabaga, lanbas, arpegi-andi...”. Ahozko erabileran, beste esanahi metaforiko eder bat dauka: zeharo mozkortzea.

Euskal Hiztegi Batuak ere lanbasa hitza jasotzen du.

RAEk hauxe dio “lampazo” sarreran: (*del lat. Lappaceus, adj, de lappa, lampazo*). *Manojo o borlón hecho de filásticas de largo variable, y con una gaza en la cabeza para su manejo, que sirve principalmente para enjugar la humedad de las cubiertas y costados de los buques*”.

Lampazotik lanbasara *ecclesiatic* elizara doan tartea dago (bai, filologok, *ecclesiatic* elizarakoa ez da berdina, badakit, baina uste dut kasua analogoa dela, mendeak gorabehera eta mailegua zer hizkuntzetatik hartu den gorabehera). Alegia, *lanbasa* euskal hitza da, ohore guztiekin.

Lanbasa hitza kostako herri batzuetan erabiltzen da, lehen belarritik dakit. Hitz bizia da, alegia. Baina euskaraz omen dakien 600.000 laguneko multzo horretatik %20ak daki, oso baikor izanda.

Inporta du “*fregona*” esateak edo “lanbasa” esateak? Erlatiboki, noski. Beste galdera batekin erantzun daiteke. Inporta du “eliza” esateak, eta ez “*iglesia*”? Erlatiboki, hau ere. Baina zer arraro irudituko litzaziguke “iglesialde”, “iglesiondo”, “iglesiburu”, “iglesiaitzin” bezalako hitzez betetako paisaje linguistiko bat, ezta?

Artikuluaren gaira itzuliz, honelako kasuetan legoke literaturaren garrantzia, paradigma zaharraren arabera, betiere. Hau da, hitz bat, edo hizkuntzaren zenbait forma, normalizatzeke, sartzeko, inposatzeko daukan ahalmenean probatuko litzateke. Honi buruz, datu batzuk:

“Ereduzko Prosa Gaur” datu basearen arabera, lanbasa hitzak 15 agerraldi ditu, 15 esalditan. Horietatik 14 agerraldi 6 liburutan daude, eta bestea (bat), prentsako artikuluko esaldi batean.

Editoreen gremioak eskatutako txosten baten arabera (2009), bestalde, 14 urtez gorako biztanleak, EAEn, 1.965.270 dira. Horietatik, %53,6k diote ohiko liburu-irakurleak direla (ohiko irakurlea, txosten horretan, hilabetero libururik edo liburu-zatirik irakurtzen duena da). Beraz, EAEn 1.053.384 liburu-irakurle daude. Horietatik, %83,6 literatura-irakurleak dira; beraz, 880.629 literatur irakurle omen daude EAEn; horietatik, %4,7k aitortzen dute “euskarazko ohiko literatur irakurleak” direla, hau da, 41.389 irakurle. Horietaz gain, %33,4k dio “noizean behin” irakurtzen dutela, edo irakurtzeko gauza direla, euskaraz. Beraz, azken datu honen arabera, euskal liburuen irakurleen unibertsoak 294.130 irakurle irabaziko litzuzke.

Hipotesi ezkorra: literaturak 41.000 irakurleri eman dio aukera, 6 liburuko 14 esalditan, “lanbasa” hitza ikusi eta, ausaz, ikasteko; “*fregonatik*”

**literaturaren
benetako indarra
%6 eskas horren
tipologian legoke
(badakigu 14 eta
24 urte artekoak
direla gehienak,
neskak gehiago
direla mutilak
baino, bigarren
mailako
ikasketak
dituztela eta
50.000 biztanle
baino gehiagoko
herri-hirietan
bizi direla).**

Literaturaren eragina, hizkuntzaren garabidearen ikuspuntutik, hiztun komunitate osoko %6 horrek oso ongi egituratua ez dagoen kultur sistema batean egin dezakeenera mugatzen da. Literaturaren konkistak, onurak eta lorpenak norberaren gogoan gertatzen dira, literatura guztiz eremu pribatuko jarduna da.

“lanbasara” pasatzeko gonbit egiteko. Hipotesi baikorra: 41.000 irakurleri ez, 340.000ri baizik.

Nik ez dut sinesten hipotesi baikorra. Ezta ezkorra ere. Hau da, ezkorra ere oso baikorra iruditzen zait.

Txalaparta argitaletxeak bere aldizkarian behin argitaratu zuen bezala (2007. urtean, 37. zenbakia), beren euskarazko liburuen salmentetan, literaturan, Sarrionandia da gehien saltzen duena, eta gehienezko salmenta-kopurua 12.000 ale dira (*Kolosala izango da*).

Euskaltzaindiak Atxagaren zuzendaritzapean kaleratzen duen Erlea aldizkariak, “1.700en aldizkaria” du azpititulo, horixe baita, oso oker ez banago, Atxagak berak proiektua bideragarria izateko jotzen duen gutxieneko irakurle kopurua.

Idazle gutxi salduko du Sarrionandiak baino gehiagok. Atxaga Atxaga da, noski. Norbaitek sinesten al du, benetan, 41.000 irakurleena?

Baina tira, sinets dezagun, argazki bat uzteko, zeri heltzeko edukitze bako ez bada: literaturak euskal komunitatearen (665.750) ehuneko 6ra (40.000) zabaltzen du bere eragina.

Eta ez dirudi, lehen uste genuenaren kontrara (paradigma zaharreko euskal kulturaren piramidea etengabe hazten eta sendotzen joango zela uste genuelako) zenbakiak hobetzen ari zaizkigunik. Galdera batzuk egin nizkien, artikulua prestatzen hasi baino lehen, Xabier Mendiguren, Gorka Arrese eta Mikel Soto editoreei eta adiskideei, eta horretan denok bat zetozen (eta haiek esandakoa bat dator Juan Mari Torrealdaik bere azken txostenean esaten duenarekin): inpresioa da zenbaki hori ez dela emendatzen ari azken bost-hamar urteetan. Titulu gehiago argitaratzen dira, bai; baina botaldiak gero eta txikiagoak dira, eta saltzen den ale-kopurua mantetzen da, hor nonbait.

Orduan, literaturaren benetako indarra %6 eskas horren tipologian legoke (badakigu 14 eta 24 urte artekoak direla gehienak, neskak gehiago direla mutilak baino, bigarren mailako ikasketak dituztela eta 50.000 biztanle baino gehiagoko herri-hirietan bizi direla).

Hau da, benetako indar hori frogatuko litzateke, %6 izan arren, beren irizpide linguistikoak hiztun komunitate osoan zabaltzeko eta are inposatzeko gauza izango liritekeelako. Alegia, horiek liritekeelako olio-botila botatzen den eraikuntza kulturalaren “goiko erpina” osatzen dutenak.

Benetan ala da? Zer efizientzia dauka, benetan, sistemak? Ni oso eszeptikoa naiz. Piramide hori ez da inoiz orekatua, ongi egituratua, jendez ongi hornitua izan. Eta elektronikak, internetek eta enparauek liburuei begira ez jartzeko behar genuen azken aitzakia eman digute.

Literaturaren eragina, hizkuntzaren garabidearen ikuspuntutik, hiztun komunitate osoko %6 horrek oso ongi egituratua ez dagoen kultur sistema batean egin dezakeenera mugatzen da. Literaturaren konkistak, onurak eta lorpenak norberaren gogoan gertatzen dira, literatura guztiz eremu pribatuko jarduna da, filatelikoarena, txanpon biltzailea denarena edo asteburuko footing-lasterkaria denarena bezala; eta hortaz, jardun hauekin parekatu beharko litzateke, mirakulu askorik eskatu gabe.

Bai, exajertzen ari naiz pixka bat, literaturak bestelako funtzioak ere badauzka. Iruditeria kolektibo bat osatzearena, kasu; oso inportantea, benetan. Beste batzuk sinbolikoak, esaterako; oso ongi datorkigu denoi, kanpoan gaudenean, Atxaga aipatzea, eta oso idazle onak dauzkagulakoarekin harrotzea. Are, oso ongi datorkio txandako politikariari aipu egoki bat ekitaldiari elebiduntasuna, normaltasuna, sentiberatasuna eta kulturaren distira emateko. Hauek ere literaturaren ekarpenak dira, euskararen garabidean.

Noraino osatzen da iruditeria kolektibo hori literaturaren bidez, ordea? Ospea eta lustrea ongi datoz, noski; ordea, Frédéric Mistral okzitaniarazko idazleak irabazi zuen Nobel saria, 1904an, eta aitortza goren horrek ez du okzitano hizkuntza desagertzetik libratu. Euskal idazleek erabilera horri etekin pixka bat aterako baliote, bederen.

Beste garai batean gaude, baina oraindik ez dugu ikasi nondik ekin. Ez dakit ba, bertsolaritzan hasi beharko dugu? ●